
KULTURARABA

KULTURARABA BULEGOA

ETA, DIRULAGUNTZA BATERA AURKEZTEN BANAIZ?



Zure proiektua dirulaguntza kultural batera aurkezteko aholku eta oinarrizko baliabideen gida

araba álava
foru aldundia diputación foral



AURKIBIDEA
pausoak eta edukiak

0	Dirulaguntzen mundurako sarrera: definizioa eta kontuan hartu beharreko ezaugarriak
1	BILAKETA: zuri gehien egokitzen zaizuna aurkitzeko iturriak eta aholkuak
2	MEMORIA: memoria eraikitzeko aholkuak eta baliabideak
3	AURREKONTUA: aholkuak eta baliabideak (plantilla)
4	Kontseilu orokorrak


Puntu bakoitza dirulaguntzaren eskaera prestatzerakoan eman beharreko pausoetako bati dagokio. Urratsez urrats, kontuan hartu beharreko aholkuak eta baliabideak partekatuko ditugu, prozesua errazagoa izan dadin.

KULTURARABA

KULTURARABA BULEGOA

6 DIRULAGUNTZA PUBLIKOEN MUNDURAKO SARRERA

Hau da sartu aurretik jakin behar duzuna...



DIRULAGUNTZA PUBLIKOEN MUNDURAKO SARRERA

Zer da dirulaguntza bat?

LEGE NAZIONALA: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa

ARABAKO FORU ARAUA: 3/1997 Foru Araua, otsailaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziei buruzkoa.

Hemen info +

Dirulaguntza bat diru-kopuru (publikoa) bat ematea da, eta 3 baldintza bete behar ditu:

1. **Ez da kontratu bat,** ez du kontraprestaziorik.

2. **Helburu bat betetzeagatik edo proiektu bat gauzatzeagatik lotuta edo arrazoituta dago.** Jarduera jakin bat **ZEHARKA** sustatzen edo babesten da. Eta arrazoi hori **EGIAZTATU** egin beharko da dirulaguntza eman izana justifikatutzat jotzeko.

3. **Helburua onura edo helburu publiko** bat sustatzea, laguntzea eta sustatzea da, hau da, **INTERES PUBLIKOKO** helburu bat lortzea.

0 DIRULAGUNTZA PUBLIKOEN MUNDURAKO SARRERA

DIRULAGUNTZA MOTAK (PROZEDURAK)

Hauetan zentratuko gara

- **Lehiaketa bidezkoa.** Gehienak, arruntak.
- **Zuzenekoak.** Izendunak, ezohikoak.

ZER IZAN DAITEKE DIRUZ LAGUNTZEKO MODUKOA?

Gastu bat diruz laguntzeko modukotzat jo daiteke, baldin eta...

- Aurkeztutako proiektuaren beharrei **zalantzarik gabe** erantzuten dionean.
- **Epe barruan** egiten bada.
- Bere kostua ez bada **merkatuaren balioa** baino handiagoa.
- **Ordainduta** badago.



KULTURARABA

KULTURARABA BULEGOA

DIRULAGUNTZEN BILAKETA

lehenengo pausua non bilatzen jakitea da



01 BILAKETA

NON BILATU?

Bisitatu maiz erakundeetako bilatzaileak eta eman izena gehien interesatzen zaizkizun buletinetan!

ERAKUNDE PUBLIKOAK


Ministerio del Cultura y Deporte / Estatal
Euskadi.eus / Gobierno vasco
Fondos Europeos / Europa Creativa
Diputación Foral de Álava
Etxepare Euskal Institutua

ELKARTE KULTURAL PROFESIONALAK

Musika Bulegoa
ADDE dantza

BULETIN KULTURALAK

Kulturklik
Arteinformado
GoGasteiz Kultura
Gure buletina ... KulturAraba!



01 BILAKETA

NOLA DAKIT ZEIN EGOKITZEN ZAION GEHIEN NIRE PROIEKTUARI?

Hori da kontuan hartu behar duzuna deialdi baten oinarriak kontsultatzerakoan

ez diezazula ezerk ihes egin!

ONDO IRAKURRI OINARRIAK. Begi-bistakoa dirudi, baina ez da. Ez zaitez tituluarekin bakarrik geratu dirulaguntza bat zure beharretara egokitzen den jakiteko, ondo ezagutu behar duzu. Oro har, oso ondo erreparatu beharko diezu puntu hauei:

1. **DIRULAGUNTZAREN XEDEA**
2. **ERAKUNDE ONURADUNAK**
3. **AURKEZTEKO EPEA/JARDUERAK GARATZEKO EPEA**
4. **DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GEHIENEKO/GUTXIENEKO AURREKONTUA**
5. **DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK ETA DIRUZ LAGUNDU EZIN DAITEZKEENAK**
6. **BALORAZIO-IRIZPIDEAK**
7. **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA/AURKEZTEKO MODUA (teletramitazioa, aurrez aurrekoa...)**

Ziurtagiri elektronikoak/ Ticketbai?

Hartu adibide gisa AFAren "Kultur Sorkuntza eta Hedapen Programak" 2024ko deialdiari buruz prestatu genuen laburpena


Adibide bezala hartu

KULTURARABA BULEGOA

PROIEKTUAREN MEMORIA

bigarren pausoa zure proiektua azaltzea da





02 MEMORIA

ZURE PROIEKTUA AZALTZERAKO ORDUAN

kontuan hartu aholku hauek idazten hasterakoan...

Azaldu gauzak ahalik eta argien eta errazenen!: Ez da beharrezkoa oso estilo akademikoa edo teknikoa erabiltzea zure proiektuari sinesgarritasuna emateko. Hobe da gutxiago, gehiegi baino!

Partekatu idatzi duzuna beste pertsona batzuekin!: proiektuarekin zerikusirik ez duten pertsonak badira, hobeto... agian kontuan hartu ez duzun ikuspegi bat eman ahal dizute eta zure diskurtsoa leuntzen lagunduko dute.

Antolatu informazioa eta definitu garrantzitsuena!: egin itzazu galdera gakoak!



02 MEMORIA

IZENBURUA

3 HITZ GAKO
zure proiektua definitzeko

OINARRIZKO 12 GALDERA

Nork?
Ekintzailearen aurkezpena

Zergatik?
Jatorria eta oinarriak I
Testuingurua - beharrak

Zer?
Azalpen orokorra (hitz-gakoak)

Zertarako?
Helburu orokorrak + espezifikoak

Nori?
Publiko objektiboa

Nola?
Ekintzak + Metodologia

Noiz?
Denboralizazioa I Kronograma

Non?
Sorkuntza, erakusketa lekuak.

Norekin?
Giza-baliabideak + kolaboratzaileak

Zerekin?
Baliabide materialak

Zenbat?
Aurrekontua

Nola neurtu?
Ebaluazioa: indikadoreak, estrategiak eta bideak

02 MEMORIA

AURKI BIDE PROPO SAMENA

Gomendagarria da puntu hau aparte eskaintzea excel formatuan

1. **TESTUINGURUA ETA OINARRIAK** Nork eta zergatik?
2. **PROPOSAMENA** Zer, nori, non?
3. **HELBURUAK** Zertarako?
4. **EKINTZAK** Nola?
5. **LAN-PLANGINTZA/ KUDEAKETA (METODOLOGIA)** Nola?
6. **KOMUNIKAZIO-PLANA** Nola?
7. **LANTALDEA ETA LANKIDETZAK** Norekin?
8. **KRONOGRAMA** Noiz?
9. **AURREKONTUA*** Zerekin eta zenbat?
   (aurreikuspenaren azalpena eta finantzaketa-iturriak)
10. **JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA** Nola neurtu arrakasta /garapena /helburuak betetzea?
    (indikadoreak eta baliabideak)

KULTURARABA

KULTURARABA BULEGOA

3 AURREKONTUA BALANTZE EKONOMIKOA

urrats hau beti da gehien kostatzen duena...







03 AURREKONTUA

NONDIK HASI?

Aurrekontuak argi utzi behar du proiektuak zenbat balio duen eta nondik datorren dirua

1

Has zaitez GASTUAK kalkulatzen eta saia zaitez errealitatera ahalik eta gehien egokitzen: horretarako eskatu aurrekontuak, galdetu hornitzaileei, beste profesional batzuei... ez asmatu zifrarik, ez moztu eta galdetu!

Aurrekontua gizentzea edo gastu batzuk sartzeari uztea saihesten du... honek luzera arazoak ekartzen ditu.

Gastuak kalkulatzeko, baliabideak zatitu/banatu ditzakezu:

- **Jardueren arabera**
- **Partidaka** (gastuak multzokatzen dira): kontratazioak, materialak, publizitatea...

2

Ondoren, DIRU-SARREREN AURREIKUSPENA egin behar da: horretarako, kontuan izan beti diru-sarrerak gastuekin parekatu behar direla.

hau aurrekontu "orekatu" bat da

03 AURREKONTUA

BALANTZE EKONOMIKOA

eredu proposamena



Excel formatuko eredu hau deskargatu eta bete ahal izango da.

	GASTUAK (guztiak) / GASTOS (todos)	DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK GASTOS SUBVENCIONALES
GASTU 1	3.000,00 €	3.000,00 €
GASTU 2	1.000,00 €	1.000,00 €
GASTU 3	500,00 €	500,00 €
GASTU 4	500,00 €	- €
GASTU 5	1.000,00 €	1.000,00 €
GASTU 6	2.000,00 €	2.000,00 €
GASTU 7	500,00 €	- €
GASTU 8	1.000,00 €	1.000,00 €
GASTU 9	500,00 €	- €
	GUZTIRA / TOTAL	**DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN AURREKONTUA / PRESUPUESTO TOTAL SUBVENCIONABLE**
	10.000,00 €	8.500,00 €

	SARRERAK (AURREIKUSPENA) INGRESOS (PREVISIÓN)	% PORTZENTAIAK / PORCENTAJES %
Baliabide propioak / Recursos propios (entradas, aportación personal...)	3.500,00 €	35
Erakunde pribatuen diru laguntzak / Subvenciones de entidades privadas	1.500,00 €	15
Udalak / Ayuntamientos	- €	0
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco	2.000,00 €	20
Beste herri erakundeen laguntza	- €	0
*** AFA /DFA**	3.000,00 €	30
	10.000,00 €	100,00%

APORTACIONES PROPIAS
APORTACIONES PRIVADAS
APORTACIONES PÚBLICAS

KULTUR ARABA

KulturAraba Bulegoa

*Txantiloi hau AFA-ko Kultur Ekintzako talde teknikoaren azken onespenaren zain dago oraindik. Orientazio-tresna gisa baino ez eskaintzen da.

03 AURREKONTUA

eredua apunteekin eta komentarioekin

	GASTUAK (guztiak) / GASTOS (todos)	DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK GASTOS SUBVENCIONALES
GASTU 1	3.000,00 €	3.000,00 €
GASTU 2	1.000,00 €	1.000,00 €
GASTU 3	500,00 €	500,00 €
GASTU 4	500,00 €	- €
GASTU 5	1.000,00 €	1.000,00 €
GASTU 6	2.000,00 €	2.000,00 €
GASTU 7	500,00 €	- €
GASTU 8	1.000,00 €	1.000,00 €
GASTU 9	500,00 €	- €
	GUZTIRA / TOTAL	**DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN AURREKONTUA / PRESUPUESTO TOTAL SUBVENCIONABLE**
	10.000,00 €	8.500,00 €

Esta es la cantidad que **se tendrá que justificar por completo** si se concede la subvención, pese a que en ella también se incluyan gastos no subvencionables.

Zenbateko hori **justifikatu beharko da osorik** dirulaguntza emanez gero, nahiz eta diruz lagundu ezin diren gastuak ere sartu.

	SARRERAK (AURREIKUSPENA) INGRESOS (PREVISIÓN)	% PORTZENTAIAK / PORCENTAJES %
Baliabide propioak / Recursos propios (entradas, aportación personal...)	3.500,00 €	35
Erakunde pribatuen diru laguntzak / Subvenciones de entidades privadas	1.500,00 €	15
Udalak / Ayuntamientos	- €	0
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco	2.000,00 €	20
Beste herri erakundeen laguntza	- €	0
*** AFA /DFA**	3.000,00 €	30
	10.000,00 €	100,00%

APORTACIONES PROPIAS
APORTACIONES PRIVADAS
APORTACIONES PÚBLICAS

En las bases de cada convocatoria, siempre encontrarás especificada cúal debe ser la cifra mínima aceptada. Este dato es importante a la hora de preparar tu presupuesto y calcular la aportación que te puede conceder la Diputación.

Deialdi bakoitzaren oinarrietan, beti aurkituko duzu zein den onartutako gutxieneko kopurua. Datu hau garrantzitsua da zure aurrekontua prestatzeko eta Aldundiak eman diezazukeen ekarpena kalkulatzeko.

RECUERDA: Revisa la bases para saber que porcentaje mínimo debes aportar tú (ejemplo: %20) **y cúal es el máximo aceptado por la convocatoria** (ejemplo: hasta el %70). Los porcentajes te ayudarán a calcular cuánto dinero puedes solicitarle a la Diputación y si estás cumpliendo correctamente este requisito.

GOGORATU: Berrikusi oinarriak zuk aurkeztu beharreko gutxieneko ehunekoa zein den jakiteko (adibidez: % 20) **eta deialdian onartutako gehienekoa zein den jakiteko** (adibidez: % 70 arte). Ehunekoek lagunduko dizute kalkulatzen zenbat diru eska diezaiokezun Aldundiari eta baldintza hori behar bezala betetzen ari zaren.

KULTUR ARABA

KulturAraba Bulegoa


Excel formatuko behin betiko eredua deskargatu eta bete ahal izango da.

KULTURARABA BULEGOA

AHOLKU OROKORRAK

honekin geratu behar zara





04 AHOLKU OROKORRAK

- Ez egin proiektu bat dirulaguntza bat lortzeko, **bilatu dirulaguntza bat zure proiektua finantzatzeko.**

- **Dirulaguntzen deialdien oinarriak berrikusi eta birpasatu ondo**, eskatutako dokumentazio guztia ezarritako epeetan aurkezteko. (Aztertu non eta nola aurkeztu!)

- **Egokitu azalpen-memoria dirulaguntzaren hizkuntzara**, ondo eraikitako aurkibide batekin, **eta erabili zure proiektua kudeatzeko eta ebaluatzeko tresna gisa.**
  - *Gomendioa: beka edo lanpostu baterako motibazio-gutun bat idazteko eta pertsonalizatzeko orduan erabiltzen den logika bera erabili.*

- Zure proiektua azaltzeko orduan, **argitasuna eta erraztasuna** izan behar dira zure aliatu nagusiak.

- **Zaindu dokumentuaren irudia.** Estetikoki zaindutako memoria bat aurkezten baduzu, proiektuarekin eta misioarekin bat datorrena, erakargarriagoa izango da.

BIBLIOGRAFÍA I BIBLIOGRAFIA

- PEREZ DE SAN ROMAN, N.; FERNÁNDEZ, O.; AGENCIA ERDU: **“¿Hacemos un buen proyecto?”.** Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

- ANDER EGG, E.; AGUILAR IDÁÑEZ, M.J. (1997). **Cómo elaborar un proyecto. Guía para diseñar proyectos sociales y culturales.** Madrid, ICSA.

- DE LA CUESTA GONZÁLEZ, M. (2002). **La financiación de las entidades sin fines de lucro.** Madrid, Editorial Universitaria Ramón Areces.

- ROSELLÓ, D. (2004). **Diseño y evaluación de proyectos culturales**. Barcelona, Ariel.



KULTURARABA BULEGOA

Calle San Antonio Kalea, 35

Harremanetan jarri
ponte en contacto

kulturaraba@araba.eus
945 18 19 80

ORDUTEGIA
HORARIO

10:00 - 14:30
goizetan - de mañana

Astelehena, Asteartea, Osteguna I
Lunes, Martes, Jueves

17:00 - 19:30
arratsaldez soilik - sólo de tarde

Asteazkenak I miércoles

***Aurrez aurreko arreta,**
aurretiko hitzorduarekin.
***Atención presencial**
con cita previa.

KulturAraba
Bulegoa

